

URRETXU / Udal liburutegia irailerako irekiko dute, berrikuntza ugari eginda

Taldeko lanak egiteko gela, KZgunea eta haurrentzako txoko berezitua izango ditu liburutegiak.

A. AREIZAGA

Urretxuko udal liburutegia berritzen ari dira. Hurrengo ikasturteari begira, liburutegiaren espazioa handitzen eta gunee bakoitza bereizten ari dira, eremuetan berrikuntzak ere eginez.

Liburutegiak orain arteko espazioaren azalera bikoitza baino handiagoa izango du, helduen eskola eta alboko biltegia ere bibliotekarako gehituko baitituzte. Modu horretan instalazio berriak txikien txokoa eta haurren gunea (57 m²), bideoteka, kontsulta gela eta irakurgela nagusia (157 m²), talde-lan gunea (40 m²) eta KZgunea (54 m²) izango ditu.

Berrikuntza nagusia, hala ere, taldean lan egiteko gunea izango da. Gazteen eskaerei jaramon eginez egokituko dute gela hori, eta liburutegiko gainontzeko aretoetan baino askatasun handiagoa izango da hitz egiteko edota taldean lan egiteko. Bideoteka eta kontsulta txokoa ere handitu egingo dute. Orain artean ordenagailu bakarra zegoen kontsultetarako, baina irailetik aurrera telebistak, lau ordenagailu eta musika entzuteko aparailuak ere jarriko dituzte, herritarrei "zerbitzu osoagoa emateko asmoz. Paretak kristalezkoak izango dira, espazioaren zabaltasun sentsazioa handitzeko.